


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, z/g

www.euskadi.net

Administración: c/ San Sebastián, s/n

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-2584

240/1999 DEKRETUA, ekainaren 2koa, zeinaren birtartez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia sortu eta arautzen duen dekretua.

6/1990 Legearen 4.1. artikulua c) idatz-zatian ezartzen da ezen Nekazari Ganberen eskumena dela «Herri Administrazioek beren esku utz ditzaten egitekoetan esku-emate hori egiten deneko esate-modu eta neurrian aritzea».

Maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuaren bidez, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen da. Eta dekretu horretan, Nekazaritza Zuzendaritzari esleitzen zaizkio Nekazaritza Ganberen gaineko eskumena eta Landa Errentamenduen Erregistro Berezia kudeatzeko eskumena.

Aipaturiko eskumena dela bide, eta Nekazaritza Ganberen izaera eta eginkizunak kontutan harturik, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Nekazaritza Ganberei eskuordetu zien Landa Errentamenduen Erregistro Bereziaren kudeaketa. Eskuordetze hori uztailaren 28ko 230/1992 Dekretuaren bidez gauzatu zen, haren birtartez sortu eta arautu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-2584

DECRETO 240/1999, de 2 de junio, por el que se modifica el Decreto por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco.

En el artículo 4.1 apartado c) de la Ley 6/1990, se dispone que son atribuciones de las Cámaras Agrarias «Ejercer las funciones que deleguen en ellas las Administraciones Públicas en los términos que la delegación se produzca».

En el Decreto 218/1999, de 11 de mayo por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca, se atribuye a la Dirección de Agricultura, la competencia de actuación sobre las Cámaras Agrarias, así como sobre la gestión del Registro Especial de Arrendamientos Rústicos.

En virtud de la competencia mencionada, de la naturaleza y funciones de las Cámaras Agrarias, el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, delegó la gestión del Registro Especial de Arrendamientos Rústicos en las Cámaras Agrarias, lo que se materializó mediante el Decreto 230/1992, de 28 de julio por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco.



Une honetan, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ego-kiagotzat jotzen du Sailak berak zuzenean betetzea Nekazaritza Ganberek Landa Errentamenduen Erregistro Bereziaren inguruan betetzen izan dituzten kudeaketa-eginkizunak, eta, beraz, bidezkoa da uztailaren 28ko 230/1992 Dekretua aldatzea.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburauren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko ekainaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Uztailaren 28ko 230/1992 Dekretuaren 3. artikulua aurrerantzean honela geratuko da (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia sortu eta arautu zen):

«**3. artikulua.**– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia bakarra da, eta Bulego bakarra izango du. Bulegoaren jardunbidearen ardura Nekazaritza Zuzendaritzari dagokio.

2.– Erregistroaz arduratuko den organoa Nekazaritza zuzendaria izango da, Nekazaritza Zuzendaritzako teknikari batek lagundurik.»

Bigarrena.– Uztailaren 28ko 230/1992 Dekretuaren 4. artikulua aurrerantzean honela geratuko da (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia sortu eta arautu zen):

«**4. artikulua.**– 1.– Erregistroko Bulegoaren kudeaketa-eremu funtzionala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremua izango da.

2.– Landa-errentamenduko kontratu baten mendeko finka bat edo batzuk, zati batez, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuaren barruan badaude, eta, beste zati batez, lurralde-eremu horretatik kanpo, finkaren kokalekuari dagozkion erregistroetariko edozeinetan inskribatu ahal izango da kontratua.

Landa-errentamendua Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Bereziari inskribatuz gero, erregistroko arduradunak kontratuaren xehetasunen berri eman behar izango die ukituriko erregistroei, erregistro-liburuan errentamendu-kontratuaren idazpena egin eta hurrengo hilabetearen barruan.»

Hirugarrena.– Uztailaren 28ko 230/1992 Dekretuaren 11. artikulua 3. idatz-zatia aurrerantzean honela geratuko da (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Erregistro Berezia sortu eta arautu zen):

En este momento el Departamento de Agricultura y Pesca considera mas adecuado que las funciones de gestión que sobre el Registro de Arrendamientos Rústicos venía desarrollando las Cámaras Agrarias, sean ejercitadas directamente por el Departamento, razón por la cual procede la modificación del Decreto 230/1992, de 28 de julio.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión del 2 de junio de 1999,

DISPONGO:

Artículo primero.– El artículo 3 del Decreto 230/1992, de 28 de julio por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco, queda redactado como sigue:

«**Artículo 3.**– 1.– El Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco es único, y dispondrá de una única Oficina, cuyo funcionamiento se llevará a cabo por la Dirección de Agricultura.

2.– Actuará como órgano encargado del Registro el Director de Agricultura, que será asistido por un técnico de la Dirección de Agricultura.»

Artículo segundo.– El artículo 4 del Decreto 230/1992, de 28 de julio por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco, queda redactado como sigue:

«**Artículo 4.**– 1.– El ámbito funcional de gestión de la Oficina del Registro será el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Si un contrato de arrendamiento rústico comprendiera una o varias fincas que se encuentren ubicadas, en parte, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en parte fuera de él, el contrato podrá inscribirse en cualquiera de los Registros afectados por razón de la ubicación de la finca o fincas.

En el supuesto de que el arrendamiento rústico se inscriba en el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco, el encargado de éste deberá comunicar las circunstancias del contrato a los Registros afectados, dentro del mes siguiente al asiento en el libro registro de los contratos de arrendamiento.»

Artículo tercero.– El apartado 3 del artículo 11 del Decreto 230/1992, de 28 de julio por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco, queda redactado como sigue:

«3.- Errejistroko arduradunak inskripzioa ukatzeko erabakia hartuz gero, haren aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan, inskripzioa ukatu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.»

Laugarrena.— Uztailaren 28ko 230/1992 Dekretuaren 14. artikulua indargabetu egin da (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Errentamenduen Errejistro Berezia sortu eta arautu zen).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jarri arte, Landa Errentamenduen Errejistro Bereziko liburuak errejistroko hiru Bulegoetan zeuden gordailaturik. Aurrerantzean, ordea, errejistroko arduradun berriaren esku jarriko dira, dekretu hau indarrean jarri eta lau eguneko epearen barruan, hain zuzen ere.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko ekainaren 2an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIGALGA.

«3.- Contra el acuerdo del encargado del Registro denegando la inscripción, el interesado podrá interponer, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente a la notificación de la denegación de inscripción, Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca.»

Artículo cuarto.— El artículo 14 del Decreto 230/1992, de 28 de julio por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco, queda derogado.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los libros del Registro Especial de Arrendamientos Rústicos, que hasta la entrada en vigor del presente Decreto, se encontraban depositados en cada una de las tres Oficinas de éste, se pondrán a disposición del nuevo encargado del Registro, en el plazo máximo de cuatro días desde la entrada en vigor del presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de junio de 1999.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIGALGA.